

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Visesarekin Harresi Parkean alokairurako babes publikoko etxebizitzak sustatzeko sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren behin betiko onarpena

Aguraingo Udalak, 2024ko otsailaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion Visesarekin Harresi Parkean alokairurako babes publikoko etxebizitzak sustatzeko sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenari.

Iragarkia 20 egun baliodunegon da jendaurrean, 2024ko martxoaren 18ko ALHAOn (33. zenbakia), Aguraingo udaletxeko iragarki oholean eta udalaren webgunean osorik argitaratuta, eta epe horretan alegaziorik aurkeztu ez denez, hasierako onarpenaren erabakia behin betiko bihurtzen da eta hitzarmena hasierako idazketarekin onartzen da.

Osoko bilkurari horren berri eman zaio 2024ko apirilaren 25eko ohiko bilkuran.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean. Bestalde, organoaren berriazko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesteko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta, edo sei hilabeteko epean, errekurtsuaren ustezko ezespina gertatu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Agurain, 2024ko apirilaren 26a

Alkatea

RAUL LOPEZ DE URALDE BALTASAR